# FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

## REGLAMENTO DE LICENCIAS FEDERATIVAS

**Artículo 1º.-**

De acuerdo con la normativa reguladora:

- Ley 14/1998 del Deporte de Euskadi, de fecha 11 de junio.
- El Decreto 16/2006 de fecha 31 de enero, por el que se regula la constitución y el funcionamiento de las Federaciones Deportivas.
- Los Estatutos de la FEDERACION VASCA DE NATACIÓN – EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA, en adelante EIF-FVN.

La EIF-FVN promulga el presente reglamento de licencias federativas, a fin de regular y reglamentar la tramitación y la expedición de las licencias federativas en todos sus estamentos.

Todas las licencias se solicitarán a través de los clubes pertenecientes de la EIF-FVN, según se recoge en los Estatutos de la EIF-FVN. Para la aceptación de dichas licencias será imprescindible que el club haya abonado la licencia de club y resto de cargos económicos que la EIF-FVN y la Fed. Territorial decidan. Asi mismo será condición indispensable que el club en cuestión no tenga ninguna deuda pendiente con la EIF-FVN ni con su Fed. Territorial. Para la solicitud de licencia de arbitro y auxiliares, las Federaciones Territoriales serán consideradas como clubes.

Cualquier materia sobre la tramitación y expedición de licencias federativas que no esté recogida expresamente en el presente Reglamento será resuelta de acuerdo a la normativa reguladora expuesta.

**Artículo 2º.-**

a) La licencia Federativa es el documento personal e intransferible, que otorga a su titular la condición de miembro de la Federación, constituyendo el vinculo de integración de cada uno de los y las miembros de los diferentes estamentos de la Federación y le habilita para participar en sus competiciones oficiales siempre con arreglo a las reglas que en cada caso rijan las mismas.

b) Este documento es expedido exclusivamente por la EIF-FVN, aún cuando su tramitación corresponde siempre a las Federaciones Territoriales, ya que la expedición de licencias federativas es una competencia que encuentra atribuida, en exclusividad, a las Federaciones Deportivas Vascas.

**Artículo 3º.-**

La Licencia Federativa habilita a su titular para participar en competiciones oficiales así como en la propia vida federativa, sirviendo como documento acreditativo en los procesos electorales.

**Artículo 4º.-**



Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T3ES0-28K2
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** JON REDONDO LERTXUNDI | 2022/02/14 08:20:05

La Licencia Federativa es única y supone la doble adscripción de su titular a la EIF-FVN y a la Federación Territorial correspondiente.

**Artículo 5º.-**

Las Licencias Deportivas serán expedidas en todo caso por la EIF-FVN.

La tramitación de las Licencias Federativas corresponde en todo caso a las Federaciones Territoriales, responsabilizándose éstas de la autenticidad de los datos ante la EIF-FVN. Las Federaciones Territoriales deberán dar cauce a las peticiones de licencia que se formule a través de los sucesivos actos oficiales que hayan de realizar para obtener las mismas de acuerdo con los requisitos y el procedimiento que fije la EIF-FVN en el presente reglamento o en las normas de desarrollo que dicten los órganos de la EIF-FVN. Así, las Federaciones Territoriales deberán informar a quienes deseen federarse sobre los requisitos y efectos de las licencias; recogerán los documentos y datos necesarios para la afiliación federativa y cobrarán el importe de las licencias.

La habilitación de las expedidas por la EIF-FVN para poder participar en competiciones de ámbito estatal o internacional se producirá por la RFEN y FINA una vez comunicada su expedición por la EIF-FVN y previo o simultáneo pago de la cuota económica correspondiente.

**Artículo 6º.-**

La Licencia Federativa tendrá validez por una única temporada, que abarcará desde el día 1 de octubre hasta el 30 de septiembre del año siguiente.

La validez de la licencia se inicia, por tanto, desde el momento mismo de su emisión o habilitación, finalizando, en todo caso, el 30 de septiembre siguiente, sea cual fuere su fecha de expedición ó habilitación.

**Artículo 7º.-**

El o la titular de una licencia federativa emitida por la EIF-FVN que desee participar en competiciones estatales o internacionales solicitará su habilitación a la propia EIF-FVN abonando a su vez la cuota económica correspondiente, siendo ésta quien deberá comunicarla a la RFEN y FINA.

**Artículo 8º.-**

La Licencia será tramitada, una vez firmada la solicitud por el interesado o interesada, en el caso de personas físicas, o por el Presidente, Presidenta o representante legal, en el caso de entidades, a través de la Federación Territorial correspondiente, acompañada del pago de las cuotas correspondientes a la licencia y seguro, cuando corresponda.

La licencia de los y de las deportistas pertenecientes a un club ~~podrá~~ deberá ser ~~tramitada~~ solicitada directamente por dicho club. En tal supuesto se responsabilizarán los clubes de la autenticidad de los datos facilitados a las correspondientes Federaciones Territoriales.

**Artículo 9º.-**

a) Para su validez, todas las licencias de deportistas emitidas por la EIF-FVN, resulten habilitadas o no por la RFEN y FINA, deberán llevar obligatoriamente aparejado la presentación del correspondiente certificado médico de aptitud de cada deportista.
Además, en el supuesto de deportistas menores de 14 años de edad, la expedición de la licencia deberá acompañarse de la autorización para competir expedida por el Departamento de Deportes de su correspondiente Diputación Foral. Para el cálculo de la edad del deportista se tendrá en cuenta el número de años que cumpla en el periodo comprendido entre el 1 de enero y 31 de diciembre del segundo año incluido en la temporada deportiva.
b) Para su validez, todas las licencias de entrenadores o entrenadoras o técnicos o técnicas deberán acompañar la titulación exigida por la EIF-FVN.
c) Para validar la licencia de entrenador o entrenadora, delegado o delegada, médico o médica, fisioterapeuta y para los y las miembros de Junta Directiva se deberá adjuntar el Certificado de Delitos Sexuales.

**Artículo 10º.-**

Los y las deportistas vascos que se trasladen a trabajar o estudiar a otras comunidades autónomas y continúen allí su actividad deportiva podrán mantener su afiliación a la EIF-FVN.

**Artículo 11º.-**

El hecho de que una misma persona obtenga varias licencias para diferentes disciplinas deportivas no requiere que abone la cuota correspondiente a dos o más seguros, bastando solo con uno, siempre y cuando dicho seguro reúna todos los requisitos establecidos en la legislación vigente.

**Artículo 12º.-**

Existirán al menos los siguientes tipos de Licencias Federativas:

LICENCIAS DE DEPORTISTAS

a) natación piscina
b) larga distancia
c) waterpolo
d) natación sincronizada
e) saltos
f) salvamento y socorrismo
g) aquagym

JUECES o JUEZAS, ARBITROS, AUXILIARES.

ENTRENADORES o ENTRENADORAS y TÉCNICOS/AS

DIRECTIVOS Y DIRECTIVAS

Una misma persona podrá tener licencia deportiva de todas las disciplinas deportivas que desee, así como también por los diferentes estamentos, siempre y cuando abone la cuota correspondiente a cada uno de ellos, cuota que debe incluir las primas de los diferentes seguros que a cada estamento le corresponde.

En ningún caso se admitirá que una misma persona ostente licencias en una misma disciplina deportiva y estamento por más de un Territorio Histórico. A no ser que lo permita la RFEN en sus Normativas Específicas.

**Artículo 13º.-**

La emisión de Licencia por parte de la EIF-FVN se efectuará exclusivamente a solicitud del interesado o interesada y por medio de la correspondiente Federación Territorial, no pudiendo en ningún caso expedirse de oficio.

Las solicitudes deberán contener:

- Fotografía tamaño carnet.
- Nombre y Apellidos.
- Fecha de nacimiento.
- Número de DNI, pasaporte ó tarjeta de residente.
- Lugar de nacimiento.
- Domicilio actual.
- Club al que pertenece (en su caso).
- Sello del Club (en su caso).
- Sello de la Federación Territorial.
- Fecha de solicitud.
- Firma del o la solicitante ó del o la representante, en el caso de menores (en su caso).
- Código de EIF-FVN en caso de poseerlo (en su caso).
- Categoría (en su caso).
- Sexo.
- Nacionalidad ó Nacionalidades que ostenta.
- Permiso de la Diputación (en su caso).
- En los casos de entrenadores o entrenadoras, técnicos o técnicas, monitores o monitoras y/o auxiliares, título acreditativo de su formación ó fotocopia compulsada del mismo.
- En los casos de jueces o juezas, árbitros o árbitras o cronometradores o cronometradoras acreditación de haber superado las condiciones exigidas para ejercer su función.
- En los casos de deportistas extranjeros o extranjeras al Estado Español, documentación de transferencia con arreglo a la normativa de cada Federación Internacional.

**Artículo 14º.-**

No se autorizará un cambio de licencia en la misma temporada, salvo que esté contemplado y cumpliendo los requisitos exigidos en las Normativas Específicas de la RFEN.

Si es en temporada diferente no es necesaria ninguna autorización.

**Artículo 15º.-**

Las solicitudes se efectuarán en el impreso oficial facilitado por la EIF-FVN, que resulte aprobado por la misma y que se pondrá a disposición de las Federaciones Territoriales.

La solicitud de una Licencia Federativa y su posterior expedición, implica:

a) la aceptación por su titular de las normas técnicas, disciplinarias y económicas de la EIF-FVN y de la correspondiente Fed. Territorial

b) que el o la solicitante presta su consentimiento para el tratamiento de sus datos, por parte de esta Federación, con fines exclusivamente relacionados con la práctica deportiva, de acuerdo con lo establecido en la ley **15/1999**, de Protección de Datos de Carácter Personal.

c) que el o la solicitante autoriza la captación y difusión de la imagen a favor de la EIF-FVN y de la Fed. Territorial correspondiente.

**Artículo 16º.-**

Las cuotas por licencias correspondientes a la EIF-FVN, serán las que se encuentren vigentes en cada momento según acuerdo del órgano correspondiente.

Estas cuotas resultarán ratificadas anualmente por la Asamblea General de la EIF-FVN, a propuesta de su Presidente y su Junta Directiva.

Todas las cantidades que compongan las cuotas deberán hacerse constar en el impreso de licencia.

**Artículo 17º.-**

Las licencias emitidas por la EIF-FVN, deberán consignar sus correspondientes datos en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma, euskera y castellano, y en todo caso consignarán claramente los siguientes conceptos económicos.

- Cuota de los seguros obligatorios de asistencia sanitaria que cubran los riesgos para la salud de la o el titular, de responsabilidad civil y de indemnizaciones por fallecimiento y por pérdidas anatómicas y funcionales.

- Cuota destinada a financiar la estructura y funcionamiento de la Federación Vasca, así como la destinada al mismo fin para la Federación Territorial correspondiente.

- Cuota, en su caso, para participar en competiciones oficiales de ámbito territorial superior.

Y también los siguientes datos:

a) Duración de la licencia.
b) Nombre y apellidos de la persona titular.
c) Fecha de nacimiento de la persona titular.
d) Disciplina ó disciplinas deportivas.

e) En su caso, entidad deportiva a la que pertenece la persona titular.
f) Categoría y estamento.
g) Firma del Presidente o la Presidenta de la Federación o de la persona en quien delegue expresamente.
h) Sello de la Federación.

**Artículo 18º.-**

La EIF-FVN no podrá denegar la expedición de una licencia deportiva cuando la o el solicitante reúna las condiciones necesarias para su obtención, dado que la expedición de licencias tiene carácter reglado.

Las licencias deberán tramitarse y expedirse o, en su caso, denegarse, en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente a su solicitud debidamente formalizada. En caso de no notificarse resolución expresa al respecto en plazo señalado anteriormente, se entiende otorgada.

Contra la denegación expresa de la tramitación o expedición de las licencias, que deberá ser motivada, o contra la denegación de la entrega del documento justificativo, podrá interponerse recurso ante la dirección competente en materia de deportes, de la respectiva Diputación Foral o del Gobierno Vasco, en el plazo de siete (7) días naturales, con arreglo al régimen establecido para el recurso de alzada en la Ley 30/1992, de 26 de Noviembre.

**Artículo 19º.-**

Los jueces o juezas, árbitros o árbitras y Auxiliares, deberán exigir siempre la correspondiente licencia deportiva de deportistas, técnicos o técnicas y oficiales, en las competiciones que así esté reglamentado y podrán exigirla en todo momento, en aquellas otras que la exhibición de la misma no esté preceptuada.

La negativa a exhibir la licencia a requerimiento de un Juez o Jueza, Árbitro o Árbitra ó Cronometrador o Cronometradora, será motivo de sanción, de acuerdo con la normativa vigente.

El consentimiento, por parte de un Juez o Jueza, Árbitro o Árbitra ó Cronometrador o Cronometradora para que un o una deportista, técnico o técnica u oficial tome parte de una competición oficial, sin estar en posesión de licencia, es igualmente, motivo de sanción con arreglo a la normativa vigente.

**Artículo 20º.-**

Toda persona poseedora de licencia, deberá ser capaz de demostrar su identidad, cuando le sea requerida oficialmente la licencia, por medio de:

- Fotografía, en caso de que la licencia la lleve.
- Documento acreditativo, suficiente legalmente y cuyo número coincida con el expresado en la licencia.

**Artículo 21º.-**

La participación en una competición deportiva oficial del ámbito de Euskadi ó del Estado Español, sin estar en posesión de la preceptiva licencia en vigor, dará lugar a las sanciones previstas en la normativa vigente.

**Artículo 22º.-**

La licencia de deportista podrá ser exigida a los efectos previstos en la normativa antidoping.

**Artículo 23º.-**

Las Federaciones Territoriales y la Federación Vasca podrán crear, de común acuerdo, una tarjeta recreativa o de servicios, no oficiales y de suscripción voluntaria, que no conllevará el derecho a participar en competición oficial alguna y que no supondrá la integración de su titular en la federación, dando lugar únicamente a la participación en actividades deportivas no oficiales o a la obtención de determinados servicios relacionados con las modalidades deportivas inherentes a nuestra Federación. En todo caso, deberán constar claramente que dicho documento no constituye una licencia federativa y que, en consecuencia, no da lugar al derecho a participar en competiciones oficiales.

**Artículo 24º.-**

El presente Reglamento deroga cualquier otra disposición anterior y contraria a lo dispuesto en el mismo.

**Artículo 25º.-**

La normativa recogida en este Reglamento entrará en vigor una vez resulte aprobada por la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco e inscrita en el Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.-** El presente Reglamento se encuentra publicado en euskera y castellano. En caso de existencia de divergencias o diferencias entre el reglamento publicado en una u otra lengua, tendrá carácter preferente la versión en castellano, por ser el de su redacción original.

GIL CRESPO SANTIAGO - 14598948C

Firmado digitalmente por GIL CRESPO SANTIAGO - 14598948C
Fecha: 2021.12.28 11:57:49 +01'00'

Javier Sáez Gómez
Presidentea EIF-FVN Presidente

Santiago Gil Crespo
Idazkaria EIF-FVN Secretario

# EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA

## FEDERAZIO-LIZENTZIEN ERREGELAMENDUA

**1. artikulua.-**

Araudi erregulatzailearen arabera:

- Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea, ekainaren 11koa.
- 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, kirol-federazioen eraketa eta funtzionamendua arautzen dituena.
- FEDERACION VASCA DE NATACIÓN – EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOAren estatutuak, aurrerantzean EIF-FVN.

EIF-FVNk federazio-lizentzien erregelamendu hau iragartzen du, federazio-lizentzien tramitazioa eta jaulkitzea arautzeko estamentu guztietan.

Lizentzia guztiak EIF-FVNko kide diren kluben bidez eskatuko dira, EIF-FVNren Estatutuetan jasotzen denaren arabera. Lizentzia horiek onartzeko, ezinbestekoa izango da klubak EIF-FVNk eta lurralde-federazioak erabakitako klub-lizentzia eta gainerako kargu ekonomikoak ordaindu izana. Era berean, ezinbesteko baldintza izango da klubak zorrik ez izatea EIF-FVNrekin eta bere lurralde-federazioarekin. Arbitro eta laguntzaileen lizentzia eskatzeko, lurralde-federazioak klubtzat hartuko dira.

Erregelamendu honetan berariaz jasota ez dagoen federazio-lizentzien tramitazio eta jaulkitzeari buruzko edozein gai azaldutako araudi erregulatzailearen arabera ebatziko da.

**2. artikulua.-**

a) Federazio-lizentzia dokumentu pertsonal eta besterenezina da, eta titularrari federazioko kidearen izaera ematen dio, federazioko estamentuetako kide bakoitzaren integrazio-lotura eratzen du, eta gaitzen du lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, betiere lehiaketa horiek arautzen dituzten arauen arabera.

b) Dokumentu hau EIF-FVNk soilik ematen du, nahiz eta tramitazioa lurralde-federazioen ardura izan beti; izan ere, federazio-lizentziak ematea euskal kirol-federazioen eskumen esklusiboa da.

**3. artikulua.-**

Federazio-lizentziak gaitasuna ematen dio titularrari lehiaketa ofizialetan eta federazioaren beraren bizitzan parte hartzeko, eta egiaztagiri gisa balio du hauteskunde-prozesuetan.

**4. artikulua.-**

Federazio-lizentzia bakarra da, eta titularra EIF-FVNra eta dagokion lurralde-federaziora atxikita egotea dakar.

**5. artikulua.-**

Kirol-lizentziak EIF-FVNk emango ditu beti.

Nolanahi ere, lurralde-federazioei dagokie federazio-lizentziak izapidetzea, eta haiek hartuko dute datuen benetakotasunaren erantzukizuna EIF-FVNren aurrean. Lurralde-federazioek bide eman beharko diete lizentziak eskuratzeko egin beharreko egintza ofizialen bidez egiten diren lizentzia-eskaerei, EIF-FVNk erregelamendu honetan edo EIF-FVNren organoek emandako garapen-arauetan ezartzen dituen betekizunen eta prozeduraren arabera. Hala, lurralde-federazioek lizentzien betekizunen eta ondorioen berri eman beharko diete federatu nahi dutenei; federazio-afiliaziorako behar diren dokumentuak eta datuak jasoko dituzte, eta lizentzien zenbatekoa kobratuko dute.

EIF-FVNk Estatuko edo nazioarteko lehiaketetan parte hartu ahal izateko jaulkitako lizentziak EIEF eta FINAk gaituko dituzte, EIF-FVNk jaulki duela jakinarazi ondoren eta aurrez edo aldi berean dagokion kuota ekonomikoa ordainduta.

**6. artikulua.-**

Federazio-lizentziak denboraldi bakar baterako balioko du, urriaren 1etik hurrengo urteko irailaren 30era arte.

Lizentziaren balioa, beraz, ematen edo gaitzen den unean bertan hasiko da, eta hurrengo irailaren 30ean amaituko da, edozein izanik ere lizentziaren emate- edo gaikuntza-data.

**7. artikulua.-**

EIF-FVNk emandako federazio-lizentzia baten titularrak, estatuko edo nazioarteko lehiaketetan parte hartu nahi badu, gaikuntza eskatuko dio EIF-FVNri berari, eta, ere berean, dagokion kuota ekonomikoa ordainduko du, eta EIF-FVNk jakinarazi beharko dio EIEFri eta FINAri.

**8. artikulua.-**

Pertsona fisikoen kasuan, interesdunak eskaera sinatu ondoren izapidetuko da lizentzia, eta, erakundeen kasuan, presidenteak edo legezko ordezkariak egingo du, dagokion lurralde-federazioaren bidez, lizentziari eta aseguruari dagozkien kuotak ordaintzearekin batera, hala dagokionean.

Klub bateko kirolarien lizentzia klub horrek berak eskatu beharko du zuzenean. Kasu horretan, kasuan kasuko lurralde-federazioei emandako datuen benetakotasunaren erantzule izango dira klubak.

**9. artikulua.-**

a) Baliozkoa izan dadin, EIF-FVNk emandako kirolarientzako lizentzia guztiek -EIEF eta FINAren gaikuntza izan edo ez izan- kirolari bakoitzaren gaitasun-ziurtagiri medikoa eduki beharko dute nahitaez.

Gainera, 14 urtetik beherako kirolarien kasuan, lizentzia emateaz gain, lehiatzeko baimena beharko da, dagokion foru-aldundiko kirol-departamentuak emandakoa.
Kirolariaren adina kalkulatzeko, kontuan hartuko da kirol-denboraldian sartutako bigarren urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean betetzen duen urte-kopurua.

b) Baliozkoak izateko, entrenatzaileen edo teknikarien lizentzia guztiek EIF-FVNk eskatutako titulazioa aurkeztu beharko dute.
c) Entrenatzailearen, ordezkariaren, medikuaren, fisioterapeutaren eta Zuzendaritza Batzordeko kideen lizentzia baliozkotzeko, Sexu Delituen Ziurtagiria erantsi beharko da.

**10. artikulua.-**

Euskal kirolariek, beste autonomia-erkidego batzuetara lanera edo ikastera joan, eta bertan kirol-jarduerarekin jarraitzen badute, EIF-FVNko kide izaten jarraitu ahal izango dute.

**11. artikulua.-**

Pertsona batek kirol-diziplina desberdinetarako lizentzia bat baino gehiago lortzeak ez du esan nahi bi asegururi edo gehiagori dagokien kuota ordaindu behar duenik, batekin aski izango baita, betiere aseguru horrek indarreko legerian ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu.

**12. artikulua.-**

Gutxienez, federazio-lizentzia hauek egongo dira:

KIROLARIEN LIZENTZIAK

a) igerilekuko igeriketa
b) distantzia luzea
c) waterpoloa
d) igeriketa sinkronizatua
e) jauziak
f) salbamendua eta sorospena
g) aquagym-a

EPAILEAK, ARBITROAK, LAGUNTZAILEAK.

ENTRENATZAILEAK eta TEKNIKARIAK

ZUZENDARIAK

Pertsona berak nahi duen kirol-diziplina guztietako kirol-lizentzia eduki ahal izango du, baita estamentu desberdinetakoa ere, betiere horietako bakoitzari dagokion kuota ordaintzen badu. Kuota horrek jaso beharko ditu estamentu bakoitzari dagozkion aseguruen primak.

Inola ere ez da onartuko pertsona berak kirol-diziplina eta estamentu bereko lizentziak izatea lurralde historiko batean baino gehiagotan. EIEFek bere araudi espezifikoetan baimentzen ez badu.

**13. artikulua.-**

EIF-FVNk lizentzia emango du soil-soilik interesdunak hala eskatuta eta dagokion lurralde-federazioaren bidez, eta ezin izango da inola ere ofizioz eman.

Eskabideek honako hauek jaso beharko dituzte:

- Txartel-neurriko argazkia.
- Izen-abizenak.
- Jaiotze-data.
- NAN zenbakia, pasaportea edo egoiliar-txartela.
- Jaioterria.
- Egungo helbidea.
- Zein klubetakoa den (hala badagokio).
- Klubaren zigilua (hala badagokio).
- Lurralde-federazioaren zigilua.
- Eskaeraren data.
- Eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura, adingabeen kasuan (hala badagokio).
- EIF-FVNren kodea, edukiz gero (hala badagokio).
- Kategoria (hala badagokio).
- Sexua.
- Nazionalitatea edo nazionalitateak.
- Aldundiaren baimena (hala badagokio).
- Entrenatzaileen, teknikarien, monitoreen eta/edo laguntzaileen kasuan, prestakuntza egiaztatzen duen titulua edo haren fotokopia konpultsatua.
- Epaile, arbitro edo kronometratzaileen kasuan, beren zeregina betetzeko eskatutako baldintzak gainditu dituztela frogatzen duen egiaztagiria.
- Espainiako estatukoak ez diren atzerriko kirolarien kasuan, nazioarteko federazio bakoitzaren araudiaren araberako transferentzia-dokumentazioa.

**14. artikulua.-**

Denboraldi berean ez da baimenduko lizentzia aldatzea, betiere hala jasota ez badago eta EIEFren araudi espezifikoetan eskatzen diren baldintzak betetzen ez baditu.

Beste denboraldi batean bada, ez da baimenik behar.

**15. artikulua.-**

Eskaerak EIF-FVNk onetsitako eta emandako inprimaki ofizialean egingo dira. Inprimaki hori lurralde-federazioen eskura jarriko da.

Federazio-lizentzia bat eskatzeak eta ondoren emateak ondorio hauek ditu:

a) Titularrak EIF-FVNren eta dagokion lurralde-federazioaren arau teknikoak, diziplinazkoak eta ekonomikoak onartzea.

b) Eskatzaileak baimena ematea Federazio honek bere datuak trata ditzan, kirol-jarduerarekin soilik zerikusia duten xedeetarako, Datu Pertsonalak Babesteko **15/1999** Legean ezarritakoaren arabera.
c) Eskatzaileak baimena ematea EIF-FVNri eta dagokion lurralde-federazioari irudia hartzeko eta zabaltzeko.

**16. artikulua.-**

EIF-FVNri dagozkion lizentziengatiko kuotak une bakoitzean indarrean daudenak izango dira, dagokion organoaren erabakiaren arabera.

Kuota horiek urtero berretsiko ditu EIF-FVNren Batzar Nagusiak, presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen proposamenez.

Kuoten zenbateko guztiak lizentzia-inprimakian jaso beharko dira.

**17. artikulua.-**

EIF-FVNk emandako lizentziek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) jaso beharko dituzte beren datuak, eta, nolanahi ere, argi eta garbi jasoko dituzte kontzeptu ekonomiko hauek:

- Titularraren osasunerako arriskuak estaltzen dituzten osasun-laguntzako nahitaezko aseguruen kuota, erantzukizun zibilarena, eta heriotzagatiko eta galera anatomiko eta funtzionalengatiko kalte-ordainena.

- Euskal Federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota, bai eta dagokion lurralde-federazioaren helburu bererako kuota ere.

- Hala badagokio, goragoko lurralde-eremuko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota.

Eta datu hauek ere bai:

a) Lizentziaren iraupena.
b) Titularraren izen-abizenak.
c) Titularraren jaiotze-data.
d) Kirol-diziplina edo -diziplinak.
e) Hala badagokio, titularra zein kirol-erakundetakoa den.
f) Kategoria eta estamentua.
g) Federazioko presidentearen edo hark berariaz eskuordetutako pertsonaren sinadura.
h) Federazioaren zigilua.

**18. artikulua.-**

EIF-FVNk ezin izango dio kirol-lizentzia emateari uko egin eskatzaileak hura lortzeko behar diren baldintzak betetzen baditu, lizentziak emateko prozedura arautua baitago.

Lizentziak hilabeteko epean izapidetu eta eman beharko dira gehienez, edo, hala badagokio, ukatu, behar bezala formalizatutako eskabidea egin eta hurrengo egunetik

hasita. Aurrez aipatutako epean horri buruzko berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eman egin dela ulertuko da.

Lizentziak izapidetzea edo ematea berariaz ukatzearen aurka, zeina arrazoitua izan beharko baita, edo justifikazio-agiria entregatzea ukatzearen aurka, errekurtsoa aurkeztu ahal izango da kirolen arloko eskumena duen foru-aldundiko edo Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzan, zazpi (7) egun naturaleko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legean gora jotzeko errekurtsoarentzat ezarritako araubidearen arabera.

**19. artikulua.-**

Epaileek, arbitroek eta laguntzaileek kirolarien, teknikarien eta ofizialen kirol-lizentzia eskatu beharko dute beti, hala araututa dagoen lehiaketetan, eta uneoro eskatu ahal izango dute, lizentzia erakustea nahitaezkoa ez denean.

Epaile, arbitro edo kronometratzaile batek eskatuta lizentzia erakusteari uko egiteak zehapena ekarriko du, indarreko araudiaren arabera.

Era berean epaile, arbitro edo kronometratzaile batek baimena ematea kirolari batek, teknikari edo teknikari batek edo ofizial batek lehiaketa ofizial batean parte har dezan, lizentzia izan gabe, zehatzeko moduko arrazoia izango da, indarreko araudiaren arabera.

**20. artikulua.-**

Lizentzia duen pertsona orok gai izan beharko du bere nortasuna frogatzeko, lizentzia ofizialki eskatzen zaionean, honako hauen bidez:

- Argazkia, lizentziak argazkia badu.
- Legez nahikoa den egiaztagiria, lizentzian adierazitakoarekin bat datorren zenbakia duena.

**21. artikulua.-**

Euskadiko edo Espainiako estatuko kirol-lehiaketa ofizial batean parte hartuz gero, indarrean dagoen nahitaezko lizentzia izan gabe, indarrean dagoen araudian aurreikusitako zehapenak ezarriko dira.

**22. artikulua.-**

Kirolariaren lizentzia eskatu ahal izango da dopinaren aurkako araudian aurreikusitako ondorioetarako.

**23. artikulua.-**

Lurralde-federazioek eta Euskal Federazioak, ados jarrita, jolas-txartel bat edo zerbitzu-txartel bat sortu ahal izango dute, ez ofiziala eta ez borondatezkoa. Txartel horrek ez du eskubiderik emango inolako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, eta ez du esan nahi titularra federazioan sartuko denik. Txartel horrek aukera emango du kirol-jarduera ez-ofizialetan parte hartzeko eta gure federazioari atxikitako kirol-modalitateekin lotutako zerbitzu jakin batzuk lortzeko, ez besterik. Nolanahi ere, argi

eta garbi adierazi beharko da dokumentu hori ez dela federazio-lizentzia bat, eta, ondorioz, ez duela eskubiderik ematen lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.

**24. artikulua.-**

Erregelamendu honek indargabetu egiten du aurrekoa den eta bertan xedatutakoaren aurka dagoen beste edozein xedapen.

**25. artikulua.-**

- Erregelamendu honetan jasotako araudia indarrean jarriko da Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartu eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu ondoren.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa**.- Erregelamendu hau euskaraz eta gaztelaniaz dago argitaratuta. Hizkuntza batean eta bestean argitaratutako erregelamenduaren artean desadostasunik edo desberdintasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du lehentasuna, jatorrizko idazkera baitu.

GIL CRESPO SANTIAGO - 14598948C

Firmado digitalmente por GIL CRESPO SANTIAGO - 14598948C
Fecha: 2021.12.28 11:58:33 +01'00'

Javier Sáez Gómez
Presidentea EIF-FVN Presidente

Santiago Gil Crespo
Idazkaria EIF-FVN Secretario